

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza **info**

Asteazkena, 2012ko ekainaren 20a. IX. urtea. 2.370. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosako historia eta folklorea, Jose Maria Jimeno Jurio ikertzailearen eskutik

Pamiela argitaletxea ikertzailearen lan guztien behin betiko argitalpena ari da egiten azken urteetan, eta 'Tolosa. Historia y folclore' bildumako 55. zenbakia da

Herriko ohitura eta tradizioen inguruan idatzitako guztia bildu dute, eta San Joan jaietako bordon dantzaren inguruko lanek leku berezia dute liburuan **02**



Iriarte, Urbeltz, Gorrotxategi, Jimeno eta Agirre Mauleonek aurkeztu zuten, atzo, liburua. I. URKIZU

Galtzaundi taldeak kirolean euskara sustatzeko kanpaina abiarazi du

Euskara elkarteak Tolosako 35 talderekin bildu da hizkuntza ohiturak aztertzeko; animatu diren lehen bi taldeak TAK eta Tolosa CF izan dira **03**



Iñaki Kruz, Inaki Irazabalbeitia, Amaia Doyague eta Iñaki Arratibel. I.G.L.

Zizurkildarrek irailean aukeratu beharko dute herriko armarrria

Gaur egun hamabi kanoi agertzen dira, baina Teodoro Hernandezena kultur elkartearen ustez, ez dira herriaren adierazle **05**

Uztailaren 13an bukatuko da landa eremurako diru laguntzak eskatzeko epea

Tolomendi garapen elkarteak bideratuko ditu Erein eta Leader programarako eskaerak **04**

Meritz Paredelakua, 95
28008 Donostia
943 310 873
www.ceinpro.es

ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

- 01. AURREINPRIMAKETA DIGITALEAN TEKNIKARIA**
ERDI MAILAKO
- 02. DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
GOI MAILAKO
- 03. GOI TEKNIKARIA 3D ANIMAZIOAN, JOLABAK ETA INGURUNE INTERAKTIBO ADITUA**
GOI MAILAKO

TITULAZIO BERRIA



Urbeltz, Agirre Mauleon, Iriarte, Jimeno eta Gorrotxategi, liburuaren aurkezpen ekitaldian. I. URKIZU

Jimeno Jurioren 'Tolosa. Historia y Folklore' argitaratu du Pamielak

Ikerlari nafarrak Tolosako tradizio eta ohituren inguruan idatzitako ikerketa eta testuak biltzen ditu

I. Urkizu

Jose Maria Jimeno Jurioren *Tolosa. Historia y Folklore* lana argitaratu du Pamielak. Tolosako kultur etxean aurkeztu dute, Nafarroako argitaletxea azken urteetan egiten ari den Jimeno Jurioren lan guztien behin betiko argitalpeneko 55. zenbakia. Tolosako ohitura eta tradizioak gertu-gerturik ezagutu zituen Jimeno Juriok eta horien inguruan idatzitako guztia bildu dute liburuan.

Aurkezpenean, Juan Antonio Urbeltz antropologoa, hitzaurrea idatzi duen Juantxo Agirre Mau-

leon, Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Roldan Jimeno egilearen semea eta Jose Mari Gorrotxategi gozogile tolosarra izan ziren. Guztiek azpimarratu zuten Jimeno Juriok Euskal Herriko kultur ondarea ezagutu eta berreskuratzeko egin zuen lana, eta Iriartek berebiziko garrantzia eman zion, hain zuzen, honi: «Herri batek bere iragana ezagutu behar du, etorkizuna eraiki eta sortzeko».

Bide beretik, Jimeno Juriok bezalako pertsonak Tolosarentzat izan duten garrantzia ere hizpide izan zuen alkateak: «Eskertzekoa da herritarren historia herritarrekin idaztea, eta baita Tolosagatik eta Tolosari idatzitako guztia ere». Horrela, Jimeno Juriok ikeritu eta berreskuratu zituen tradizio hauek belaunaldi berriei helaraztearen garrantzia ere arituz: «Udaberrirantz dantza taldeari ere eskerrak eman behar zaizkio, ur-

tero-urtero ohitura zahar hauek belaunaldi berriei helarazi eta kalera ateratzeagatik».

Roldan Jimenok liburuaren aurrekariak eta nondik-norakoak azaldu zituen. *Tolosa. Historia y Folklore* lanak, horrela, Jimeno Juriok Tolosaren inguruan idatzitako ikerketak biltzen ditu; besteak beste, herriko erakundeetan, herritarretan eta herriko folklore ohituretan oinarrituriko testuak sortu zituen, eta San Joan eguneko bordon dantza ikertu zuten bereziki.

Izan ere, 1970eko hamarkadan Nafarroako historia errotik ikeritzen hasi zenez geroztik, Euskal Herriko hainbat dantza ezagutu eta berreskuratzeari ekin zion ikertzaile nafarrak. «Bere helburua zen Euskal Herriko dantzak ikertzea eta berreskuratzea, noratasuna berreskuratze bidean», dio bere semeak.

Tolosako bordon dantza, aurretik ere, Juan Inazio Iztuetak, Juan Antonio Urbeltzek eta Udaberrirantz dantza taldeak ere ikertu zuten.

Tolosako dantza taldeak dokumentazio lan handia egin zuten, besteak beste, Iruñeko elizbarrutiko artxiboan, eta *Dantzariak* aldizkarian argitalpen bat egin zuten. Jimeno Juriok hemendik abiatu zen, hain zuzen, *Tolosa desde la bordon-dantza* lana idazteko.

Urteetan zehar, lanaren eskuizkribua Udaberrirako artxiboan egon ondoren, 2002an, dantza taldeko kidea zen Fernando Rojok eta Juantxo Agirre Mauleonek lan egin zuten ikerketa argitaratzeko.

Horrela beraz, *Tolosa. Historia y Folklore* liburuan, *Tolosa desde la bordon-dantza* liburua gain, bertako folkloreak inguruko testu eta hausnarketak irakurgai izango dira.

Errekortarien aurpegiak barregarriena ikusi ahal izango da igandean

Sarrerak larunbatean eta igandean salgai izango dira, zezen plazako leihatilan bertan

I. Urkizu

Igande honetan, Euskal Herriko errekortariak izango dira zezen plazan, eta beren teknika profesionalaz gain, beren alderik barregarriena ere erakutsiko dute.

Ikuskizuna 18:00etan hasiko da, San Joan jaietako egitarauaren barruan, eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du.

Lehen zatian, errekortarien ohiko salto, errekorte eta teknika profesionalak izango dira ikusgai. Saioko bigarren zatian, berriz, zenbait joko egingo dituzte, kutsu barregarriagoa emanez.

Sarrerak larunbatean erosi ahal izango dira, 11:00etatik 13:00era, eta igandean, berriz, 11:00etatik 13:00era, eta 17:00etatik aurrera. Helduek 7 euro ordaindu beharko dute, eta haurrek, berriz, 3 euro.

Hainbat jarduera topagunean, 'Uda gaztea'rekin

Uztailaren 2an hasi, eta 19ra bitarte, eskulanak, kirolak eta txangoak antolatzen dituzte gaztetxoentzat

I. Urkizu

Uztailerako hainbat jarduera antolatzen ditu Tolosako Udaleko Gazteria sailak, Gazte Topagunean.

Uztailaren 2tik 6ra, auzolande- giak izango dira Urkizun. Hilaren 9an, berriz, erlojuak egingo dituzte eskulan tallerrean. Uztailaren 10ean, *Tolosako txokoetan* bideoa grabatuko dute, eta diablo eta eskujokoak egingo dituzte, Trianguloan, uztailaren 11n. Surf ikastaroa hilaren 12an izango da, eta 16an, berriz, fimoa eta filtroarekin eskulanak egingo dituzte. Azkenik, uztailaren 17an, euskal jolasak izango dira, 18an askaria, eta 19an Txindokiko Itzala gunera joango dira.

Irganaren eta tradizioaren ondarea ikertzeari eskainitako bizitza

→ Jose Maria Jimeno Juri (Artaxoa, 1927- Iruñea, 2002) iker-tzailea zen, eta dokumentuez nahiz jendarteaz ballatzen zen horretarako. Historia, etnografia, arte eta toponimiari buruzko hainbat lan argitaratu dituen egilea da, eta honakoak dira nabar-menatariko batzuk: *Historia de Pamplona y de sus lenguas* (1995), *Navarra. Historia y euskera* (1997) eta *Al airico de la tierra* (1998). Era berean, hainbat aldizkaritako kolaboratzailea ere izan zen: *Príncipe de Viana*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* eta *Fontes Linguae Vasconum*. Euskaltzaindiako ohorezko kide izendatu zuten 1991. urtean, eta 1998an, berriz, bi sari jaso zituen: Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria eta Sabino Arana fundazioaren *Bizi osoko ibilbidearen saria* ere bai.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Futbolearen eta arraunean, euskaraz

Galtzaundik, Tolosa CF eta TAKrekin batera, kirolean euskara bultzatzeko kanpaina jarri du abian Tolosan

Imanol Garcia Landa

Galtzaundik abian jarri du kirola euskaraz egiteko kanpaina, eta bere prestutasuna agertu dute Tolosa CFek eta TAK-k. Beraz, futbola eta arrauna atsegin dutenek, eta euskaraz jakinik entrenamenduak eman eta talde horietan lagundu nahi dutenek, Galtzaundi euskara elkartearen izena eman dezakete. Agerraldia eman zuten atzo egitasmoaren berri emateko eta bertan izan ziren Galtzaundiko Amaia Doyague, Tolosa CFeko Iñaki Arratibel, TAK-ko Iñaki Kruz eta Inaki Irazabalbeitia Tolosako Udaleko Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako zinegotzia.

Galtzaundik 16 urte azpiko aisialdia aztertu du hizkuntzaren ikuspuntutik 2011-2012 ikasturtean, eta horretarako Tolosako 35 taldeekin izan dira harremanetan. Hainbat puntu aztertu dituzte lan horretan: talde bakoitzeko hizkuntza paisaia; boluntarioen eta langileen euskara ezagutza; entrenamenduetan, jardueretan eta jasotzen den formazioetan erabiltzen den hizkuntza; eta az-



Iñaki Kruz, Amaia Doyague, Iñaki Arratibel eta Inaki Irazabalbeitia, atzoko agerraldian. IGL

kenik, beste erakundeekin zein etxe barruko bilkuretan erabiltzen den hizkuntza. Diagnostikoa egiteko hainbat helburu izan dira: Tolosako gazteekin lanketaren bat egiten duten taldeetan euskararen erabilpena zenbatekoa den zehaztea, aurrera begira zein pauso eman erabakitzeko datuak izatea, eta zein elkartera eta zerekin jo erabakitzeko datuak izatea.

Ikerketa 16 urte azpikoekin adin tartean egitea zergatik erabaki zuten argitu zuen Doyaguek: «Estrategikoak direlako, euskararen

geroa baldintzatuko duten belaraldia direlako, eta kontuan hartuta Tolosako ikastetxeetan D ereduan ikasten dela, aisialdiko jarduerak euskaraz egiteko hiri ezin egokiagoa da».

Bi taldeen prestutasuna

Orain, diagnostikoaren emaitza eskuetan dituztela, taldez talde proposamenak egiten ari da Galtzaundi eta hor kokatzen da futbolaren eta arraunaren munduan egiten ari diren kanpaina, Tolosa CFek eta TAK-k horretarako prestutasuna agertu baitute.

Doyaguek azaldu zuenez, bi talde horiek euskararen erabilpenaren ematen dituzten pausoen jarraitzea egingo dute.

Tolosa CFeko Iñaki Arratibelek azaldu zuenez, «gure nahia eta helburua euskara erabiltzea izan da, eta gainera ikusten da neska-mutil guztiek euskaraz dakitela eta erabiltzen dutela». Arratibelek zehaztu zuenez, askotan arazoa izan da laguntza ematera joaten zaizkien artean, batzuk euskaraz dakitela eta beste batzuk ez. «Kanpaina entrenatzaileei zuzenduta dago, baina

beste hainbeste gertatzen zaigu zuzendaritzara laguntza ematera joaten direnekin», zehaztu zuen. Kanpaina honekin espero dute taldera jende berria joango dela eta horiek «euskararen erabilpena maila guztietan behar den bezala izatea», esan zuen Arratibelek.

TAKren kasuan, Iñaki Kruzek dioenez, «kirola egin eta emaitzak lortzen saiatu gara, baina euskara ez dugu kontuan hartu. Oso interesgarria iruditu zaigu ekimen hau eta prest gaude euskararen erabilpenaren kontzientzia hartu eta egitasmo honetan parte hartzeko».

Bere aldetik, Inaki Irazabalbeitiak eskerak eman zizkien bai Galtzaundiri eta bai bi kirol taldeei egitasmoa abian jartzeagatik, eta herritarrek animatu zituen izena ematera. «Udalaren aldetik oso garrantzitsua da haur eta nerabeek eskolatik kanpo jarduerak euskaraz egin ahal izatea», zehaztu zuen Irazabalbeitiak, eta gogora ekarri zuen udal gobernuaren helburuetako bat Tolosan ohiko komunikazio hizkuntza euskara izatea dela.

Egun batetik bestera ez dela helburu hori lortuko esan zuen Irazabalbeitiak: «Urteak beharko ditugu eta lan horretan gizarte eragile askoren konplizitatea eta laguntza beharko ditugu, kasu honetan kirol elkarrean». Hori horrela, Irazabalbeitiak espero du aurrerantzean ere horrelako egitasmoak martxan jartzea agerraldian egon diren bi taldeekin zein gainontzekoekin.

Udaltzaingoak hartu du hirigintza ikuskaritzaren ardura, Tolosan

Orain arte Hirigintza sailetik egiten zen lan hori; udaltzaingoaren «izaera herritarra» sustatu nahi dute

I. Garcia Landa

Tolosako Udalak hirigintzako ikuskaritzaren ardura, hemendik aurrera, udaltzaingoak bere gain hartuko duela jakinarazi du. Udalaren berrantolaketa barnean, sailen zereginak berraztertze ari ekin dio udal gobernuak, «ahalik eta zeregin gehienak barneratu eta egituren eraginkortasuna» sustatu asmoz.

Horrela, orain arte hirigintza arloko ikuskaritza, hau da, baimendutako edota antzemandako obretara egiten diren ikustaldiak hirigintza sailak berak gauzatu izan baditu ere, hemendik aurrera udaltzaingoa izango da ardura

hori bere gain hartuko duena. Hartutako erabakiarekin, bate-tik, Hirigintza sailak orain arte kanpotik kontratatu behar izaten zituen hainbat lan egiteko baliabideak askatzen dira. Bestetik, udaltzaingoaren «izaera herritarra» sustatzen da, udal gobernuaren irizpideei jarraiki, «beronek izan behar baitu udalak kalean duen solaskide gertukoena», udal-letik azaldu dutenez. Beraz, udaltzaingoaren ikuskaritza jasotzen duenak ez duela inolako zigor prozeduraren adierazletzat hartu behar dio udalak, «hemendik aurrera ohikoa izango den ikuskaritza prozedura gisa baizik».

Lurperatzearen aldeko taldea, «oso pozik» kontsultaren emaitzarekin

Tolosako Larramendi auzoan egindako galdeketa baliabidearen balantzea egin du bizilagun taldeak

I. Garcia Landa

Larramendi Kalea Lurperatzearen Aldeko Taldeak larumbatean egindako kontsultaren inguruko balantzea egin du eta emaitzarekin «oso pozik» daudela azaldu du. «Izan ditugun baliabide urriak kontuan hartuta, gure pertsonalak besterik ez, emaitza ezin hobea izan da eta argi geratu da auzoaren iritzia zein den: hitzar-

tuta zegoen urbanizazioa betetzea», esan dute, eta gaineratu: «Eskerrik beroenak bozkaz beraien babesa eskaini diguten guztioi».

Bestalde, taldeak uste du ez zela zertan prozesu guzti honetara iritsi behar «onartutako eta finantzatuta zegoen proiektu bat» baita, eta «guztion denbora, energia eta diru galera besterik ez baitu suposatuta», esan dute. «Irabazten atera dena berriro ere enpresa sustatzailea izan da, obra guztian inbertitu beharrekoa beste urtebetez atzeratu baitu horrek dakarrenean interesekin», zehaztu dute.

Horretaz gain, txosten juridikoa lortzeko ekarpen ekonomikoa egin duten guztiei eskerrak

eman dizkiete, eta 2546,82 euro bildu dituztela azaldu dute. Sei Urbanistas abokatatu bulegoak egin zuela azaldu dute, «Arruti & Antunez Abogados-ek erantzun baitzuten, eskatutako lana ezingo zutela egin interes kontrajarriak zirela eta».

Txosten juridikoa Interneten zintzilikatu dute, «diru laguntza eskaini duten guztiek eskuragarri izan dezaten», taldeak azaldu duenez. «Bertan argi geratzen denez, bide judizialera jotzeko erabateko eskubidea aitortzen eta aholkatzen zaigu, eskubide urrateta garbia dela eta, bai epetan eta baita urbanizazio exekuzioan ere», gaineratu du lurperatzearen aldeko taldeak.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti nahi
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

→ Laburrak

X. Langostino Moto Festa izango da hilaren amaieran

IBARRA > Ekainaren 30ean eta uztailearen 1ean X. Moto Festa izango da Ibarra Langostino elkartearen eskutik. Ekainaren 30ean 14:00etan hasiko da jaiak, eta hurrengo eguneko bazkariarekin amaituko da. Tartean, motorrekin jokoak eta akrobaziak, rock jaialdia, motorrekin bira eta bazkaria izango dira. Izen emateko, langostinomoto-festa@gmail.com helbidera idatzi beharko da.

San Joan bezperako afarian izena ematea

BERROBI > San Joan bezpera izaki, hilaren 23an, afari «paga-noa» egingo dute Berrobiko Urruti baserrian. Ondoren, herriko gazteek afalondoa alaituko dute trikitixarekin eta San Joan sua piztuko dute. Kultura batzordeak, herritar oro gonbidatu du afarian parte hartzera. Norberak bere platerak, mahaitresnak eta edalontziak eraman beharko ditu eta plastikozkoak ez izatea eskatu dute, «zabor gutxiago egite aldera». 5 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko, eta gaur izango da izena emateko azken eguna.

San Joan bezperan afaria egingo dute Txaraman

LEABURU-TXARAMA > San Joan bezperan, hilaren 23an, sua piztu aurretik, afaria egingo dute Txaramako plazan, 20:00etan hasita. Bada, bihar izango da izena emateko azken eguna, eta horretarako, 675 705 897 (Itziar) edota 650 276 510 (M. Jose) zenbakietara hots egin beharko da.

Udaleko irekietan parte hartzeko izen ematea

ARESO > Udaleko irekiak egingo dituzte Areson, uztailearen 9tik abuztuaren 10era, goizetan. 948 60 45 45 zenbakian edo kirolmank@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

Kultur langetietako ikasleen lanak daude Ibarra kultur etxean; 60 herritar aritu dira egur taila, altzarien zaharberritzea, margoketa, eskulanak, ehoziriak eta arropa konponketa tailerretan.

Herriko ezkutuko artistak

Iñigo Terradillos Ibarra

Artista handiak daude Ibarra kultur etxe-ko erakusketa osatzen duten lanen atzean. Udaleko kultura sailak eskaintzen dituen tailerretan parte hartu duten herritarren lanak dira. Uztailearen 6ra bitarte izango dira erakusketako atek zabalik bisitarien esperoan.

Arropa konponketa, egur taila, altzarien zaharberritzea, eskulanak, margoketa eta ehoziri tailerrek eman dituzte aurtengoan. Ia 60 lagun aritu dira barruan dar-maten artista trebatzen. Urtetik urtera errepikatzen dutenak dira gehienak, baina izan dira aurten estreinakoz animatu direnak ere.

Askotariko lanak

Altzariak zaharberritzen ikasten sei lagun aritu dira kultur etxe-ko sotoan. Erakusketa deigarri diren elementu batzuk tailer honetan sortuak dira, maleta zahar-rrak, kasu. 1800 urte inguruak dira, ikasle batek zituen ganbaran, eta konpontzea erabaki zuen. Emaizta benetan bikaina izan da.

Arropak konpontzen beste sei lagun aritu dira. Hauek, esaterako, trukuak ikasi dituzte haurra handitzen denerako arropa egokitze-ko. Eskulanetan, berriz, pampinak, katamaloak, ontziak edota zorroak egin dituzte, bertan izan diren zortzi pertsonek. Egur tailan bezala, ehoziri tailerretan urteak daramatzate lanean ikasleak, eta nabari da, profesionalak eginiko lanak baitira eurenak. Bestalde, margoketa langetiko 12 ikasleek eginiko koadroetak batzuk horretan zintzilik daude. Teknika eta estilo anitzekoak, margolari finen zertzeladak nabari dira guztietan.

Etzi bitarte goizez eta arratsaldez egongo da ikusgai, eta ekainaren 26tik aurrera 09:30etik 13:30era. Aukera polita datorren urtean ikastaroren batean izena eman nahi duenarentzat.



Egur taila tailerretan eginiko artelanetako bi. IT.



Ehoxiri tailerretan, mantelak, eskularruak edota oihalak egin dituzte, ikasleek. IT.



Aurten, telak margotzen aritu dira eskulanetakoak, besteak beste. Eskuinean, margolari baten koadroa. IT.

LEABURUKO OSTATUA

UDAKO ORDUTEGIA (Egunero 11:00etatik 24:00etara)

- Ogitartekoak, plater konbinatuak, ... asteko gau guztietan.
- Eguneko menua 9 eurotan
- Asteburuko menua 18 eurotan

Etorri eta gozatu. 943 674 277



1800 urte inguruak dira zaharberritzen aritu diren maleta hauek. IT.

OSTATUA



Zizurkilgo egungo armarrria, udaletxeko bilkura aretoan. A. IMAZ

Zizurkildarrek armarrri berria irailean aukeratuko dute, herriko jaien bueltan

Teodoro Hernandorena kultur elkarteak egungo armarrria aldatzea proposatu zion udalari

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkildarrek euren armarrri berria aukeratzen jarraitzen dute. Iragan astean, bide horretan, urrats berria eman zuten: herritarrek bilera egin zuten nolako armarrria nahi duten erabakitzeko, eta orain proposamenak lantzen ari dira, herriko jaietan aukeraketa egin ahal izateko.

Udalak zizurkildarren parte hartzea bultzatu nahi du prozesu honetan, eta orain arteko eta hemendik aurrerako urrats guztiak herritarren iritzia kontuan hartuta emango ditu.

Hamabi kanoiak

Teodoro Hernandorena kultur elkarteak kideek, udal ordezkariak armarrriaren inguruan proposamena egin zuten iragan urte amaieran. Beraien nahia Zizur-

kilgo armarrria aldatzea zela adierazi zuten. Gaur egun hamabi kanoi agertzen dira armarrrian, eta kultur elkarteak kideen ustez, herritarrek ez dituzte eurenak sentitzen; ez dira herriaren adierazle.

Hamabi kanoi horien historia Nafarroaren konkistan kokatzen da. Guda luzearen barruan, beste hainbat guda txiki egon ziren, eta horietako batzuk gipuzkoarren eta nafarren artekoak izan ziren. Nafarroaren alde borrokan ibili zen atzeritar talde bat, ihesi, itzulerako bidea egiten ari zela, gipuzkoarrek aurkitu omen zen baso edo mendi batean. Gipuzkoarrek ikustean, arma eta tresna guztiak bertan utzi omen zituzten, ihesarekin jarraitzeko. Arma horien artean hainbat kanoi zeuden, eta hauek gipuzkoarren esku gelditu ziren, garaipenaren ikur bezala. Gaztelako erregeek, kanoi horiek nahi zituzten moduan erabiltzeko «chorea» eman zien gipuzkoarrei.

Gaztelako erregeen «saria» urteetan zehar egon da Gipuzkoako Foru Aldundiaren armarrrian, baita hainbat udalerrirenean ere. Guztiek ordea, denborarekin ka-

noiak kentzea erabaki zuten, eta egun, Zizurkilgo armarrrian bakarrik aurkitzen dira.

Alde batetik, anaien arteko borroka eta garai latz baten oroigarri direnez kanoi hauek, eta bestetik, herritarrekiko identifikaziorik ez dutenez, udalak bat egin zuen Teodoro Hernandorena kultur elkartearen eskariarekin. Une horretan, prozesu bikoitz bat jarri zen abian Zizurkil: administratiboa edo lan burokratikoa, eta herritarren parte hartzean oinarritutako prozesua.

Bigarren ibilbide horretan, udala herritarrengana informazioa eskuetan duela zuzendu da. Maiatza Saltsan bezalako ekimenak aprobetxatuz. Informazio bilera, hitzaldiak eta abarren ondoren, proposamen berriak aurkezteko epea iritsi da, eta amaizteko, herriko jaietan armarrri berria aukeratzeko dute zizurkildarrek. Aurrez, herritarrek edo herriko eragileek aurkeztuko dituzten proposamenak ikusteko eta gertutik ezagutzeko aukera egongo da, beti ere, armarrri esanguratsua aukeratzeko bidean.

Zero Zaborren inguruko informazioa ematen jarraituko du udalak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Iragan asteazkenean amaitu zen Amasa-Villabonako Udalak antolatutako *Ingurumenean Ados!* Zero Zabor estrategiari buruzko hitzaldi zikloa, eta balorazio positiboa egin du. Era berean, informazioa ematen jarraitzeko asmoa azaldu du.

Guztira bost bilera egin dituzte, Zero Zabor politikaren oinarrien berri emateko, eta udalak, batik

bat, hondakinak bere jatorriari murrizteak duen garrantzia azpimarratu du, hainbat iritzi eta ekarpen herritarrengandik jasotzeko. Udalak bere esker ona azaldu nahi izan die hitzaldietara gerturatu diren herritarrei, eta agerterik izan ez dutenei, Zero Zaborren inguruan berri ematen jarraituko duela jakinarazi die.

Horrez gain, edozein zalantza argitzeko herritarrentzat udal-etxeko ateak zabalik daudela azaldu du.

→ Laburrak

Gutun lehiaketako sariak banatuko dituzte, etzi

KULTURA › Aiztondo V. Gutun Lehiaketaren sari banaketa hilaren 22an, etzi, izango da Zizurkilgo Iriarte kultur etxean, 18:00etan. Andoingo musika eskolako ikasleek emango diote hasiera ekitaldiari, eta jarraian, irabazitako gutunen irakurketa eta sari banaketa ekitaldia egingo da. Amaizteko, zizka mizka egongo da.

Jubilatu eta pentsiodunen bazkarirako azken eguna

ANOETA › Jubilatu eta pentsiodunentzako bazkaria antolatu du udalak hilaren 24ean, Zuloaga Txikin, 14:00etan. Bertara joateko hiru baldintza bete behar dira: Anoeta errolaturik egotea; jubilatutako edo pentsioduna izatea; eta 60 urtetik gorakoa izatea, adin hori barne. Udalak azaldu duenez, urteroko ohitura honetara ezkonkideak ere joan daitezke, nahiz eta aurreko hiru baldintzak ez bete. Bazkarira joateko izena eman behar da, eta horretarako epea gaur amaizten da. Horretarako udaletxera joan behar da, 09:00etatik 13:00etara.

Jaien balantzea egingo dute bihar, 19:00etan

ANOETA › Herriko jaien inguruko balantzea egingo bilera egingo dute Anoeta bihar, hilak 21. Batzarra udaletxean egingo dute, 19:00etan. Udaletik dei egin die herri talde eta anoetar guztiak, bilera parte har dezaten eskatzuz.

'Patchwork' eta eskulan erakusketa Iriarten

ZIZURKIL › Aste honetan zehar, 18:00etatik 20:00etara, Iriarte kultur etxean *patchwork* eta eskulan ikastaroetako ikasleek lanak ikusteko aukera egongo da. Udaletik herritarrei bertara joateko gonbitea luzatu die: «Ikasturtean zehar pazientzia eta mimo handiz egindako eskulan zoragarri hauek mires-terako aukerarik ez galdu».

Loatzo musika eskolako ikasturte amaierako jaiak

KULTURA › Loatzo musika eskolako ikasleek urte amaierako jaietan jarraitzen dute, herriz herri. Gaur, Altzoko eskola azpiko aretoan, 18:30ean, eta Villabonako Gurean ariko dira, 18:00etan. Bihar, hilaren 21ean, Anoetako Auditoriunean egingo dute urte amaierako jaiak, 18:00etatik aurrera, eta Aduna-ko elizan, 19:00etan.



“Erraustea planteatu da baina honek baditu ondorioak osasunean eta ingurugiroan”

Alaitz Mujika.
Erizaina.



Osasunagatik
Ingurugiroak kezkatzeko gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz

Jarduera ekonomikoa eta lanpostuen sorrera bultzatzeko diru laguntzak

Tolomendik bideratuko dituen sortak landa eremurako dira; epea uztailearen 13an bukatuko da

Eneritz Maiz

Tolomendik, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak, landa ingurunea eta herri txikiak sustatu eta garatzeko diren Erein eta Leader diru laguntza programak bideratzen ditu.

«Europatik datorren dirua da, eta herri txikiak garatzeko bideratzen da. Tolomenditik dei berezia egin nahi diegu herritarrei. Aurten bereziki eta inoiz baino gehiago jarduera ekonomikoa eta lanpostuen sorrera bultzatu nahi dira», azaldu du Imanol Olano To-

↓ Diru laguntzak

EREIN ETA LEADER

■ **Landa eremua.** Autonomoek, jatetxeek, dendek, enpresek,...

■ **Informazioa.** Tolomendiren egoitzan, 943 65 50 97 telefono zenbakira deituz edota tolomendi@tolomendi.net helbide elektronikora idatziz.

lomendiko teknikariak. «Eusko Jaurlaritzak bi alor horiei eman die garrantzia».

«Enpresa, jatetxea, denda, autonoma... izanez gero, egin behar dituzten inbertsioak programa hauen bidez lagungarriak izan daitezke», nabarmendu dute Tolomenditik.

Diru poltsa handia dago zuzendua laguntza hauetara, eta aukera zabala eskaintzen du. «Negozioa hobetzeko egiten den edozein inbertsio da lagungarria», gaineratu du Olanok.

Eskaerak egiteko epea uztailearen 13an, ostiralean, bukatuko da. Eskualde ia guztia, landa eremuan kokatutako herri txikiez osatua dagoenez, diru laguntza hauek guztiz aproposak dira Tolosaldeko herritarrentzat.

Informazio gehiago nahi duenak edota proiekturen bat esku artean duenak, Tolomendik, Tolosan, Nafarroa etorbidean duen bulegora joan da, 943 65 50 97 telefonora deituz edo tolomendi@tolomendi.net helbide elektronikora idatziz eskuratu dezake. Interesa dutenei, Tolomendiko teknikoek lagunduko diote diru laguntza bideratzen.



Adin guztietako jendea animatu zen parte hartzera. HITZA

Umore ona izan da nagusi Bedaioko bi probetan

Oinez 100 eta bizikletaz 40 pertsona atera dira; antolatzaileak «gustura» geratu dira aurtengoak eman duenarekin

E. Maiz Bedaio

«Eguraldia ezin hobea eta parte hartzaileen giroa paregabea», izan da antolatzaileek nabarmendu dutena. Igandean, Bedaioko mendi martxa eta BTT proba izan ziren. 100 pertsona izan ziren oinez ibilbidea egin zutenak, eta

BTT proban, berriz, 40 pertsonak hartu zuten parte. Gipuzkoako herri askotatik joan ziren Bedaio-
ra ibilbidea egitera.

Bedaio mendi martxan parte hartu zutenek, inguruaz gozatuko aukera izan zuten, «Mattin Jauregi 14 urteko gazteak, denbora ona egiteaz gainera dozena erdi ondo biltzeko aprobetxatu zuten», adierazi dute antolatzaileek.

Amaieran, bedaiotarrek eskaintako hamaiketako gain, enpresa eta komertzioek emandako opariak banatu zituzten bertaratuaren artean.

→ Laburrak

Alonso eta Esnaola, Mikel Goñiren aurka, larunbatean

Gipuzkoa Zero Zabor taldearen hitzaldia, gaur

ALEGIA ▶ Gipuzkoa Zero Zabor taldea izango da, gaur, Alegiako kultur etxean. Hondakinen inguruko hitzaldia eskainiko dute, eta udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu bertara. Hitzaldia, 19:30ean hasiko da, eta hitzaldiaren ostean galderak egiteko aukera izango da herritarrek dituzten zalantzak argitzeko.

IKAZTEGIETA ▶ San Joan bezpera egunean, Alonso ikaztegiatarak eta Esnaola txaramarrak osatutako bikoteak, Mikel Goñi pilotari nafarraren aurka jokatu du. Pilota partida pilotalekuan izango da, eta 18:00etan izango da. Kultura batzordeak sarrerak Ostatu eta Toki Alai tabernetan jarri dituzte salgai. 14 urtetik gorakoek zortzi euro ordaindu beharko dute, eta 4 urtetik 14 urtera bitartekoek lau euro. Ondoren, afaria eta San Joan sua izango dira.

Irudia ▶ Bidegoian



KONPOSTA NOLA EGITEN DEN IKASIZ

Bidegoiango Udalak antolatuta, autokonpostaje ikastaroa egin zuten, larunbatean. Urola Erdiko Mankomunitatean dago Bidegoian, eta bertako ordezkariak etorri zitzaizkien ikastaroa ematera. Hogeita hamar herritarrek parte hartu zuten, eta

denek eraman zuten konpostagailua etxera. Ikasitako pausoak eta gomendioak praktikan jarri eta zabotegira botatzen den zaborra gutxitzea dute helburu. Ikastaroa egin nahi duenak, aukera izango du udalarekin harremanetan jarri. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketá, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iruzituen erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Alegia.** Gaur, 19:30ean, udal-txean, Gipuzkoa Zero Zaborrek hitzaldia eskainiko du.
- **Tolosa.** Iurreamendi egoitzan Adinekoen Astea ospatzen ari dira. Gaur meza egingo dute 10:00etan, tonbola 11:00etan, egiotzako abesbatzak emanaldia eskainiko du 16:30ean, eta udal musika eskolako ikasleen kontzertua 17:30ean izango da.
- **Anoeta.** Herriko dantza taldeak urteko sanjoanetan egiten duen San Joan zortziko dantza prestatzeko hitzordua egin du gaurko. 19:00etan elkartuko dira Mikelasagasti auditorioan.
- **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak jakinarazten duenez, hasi dute jada, datorren ikasturteko matrikulazio kanpaina. Aurten instrumentua aukeratu behar dutenek hilaren 26tik 29ra arte eman ahal dute izena. Informazio gehiago nahi izanez gero 943 65 15 93 telefono zenbakira deitu behar da, 10:00etatik 13:30era.

MUSIKA

- **Villabona.** Loatzo musika eskolako ikasleek, gaur, 18:00etan, Gurean tailerretako emanaldia eskainiko dute.
- **Altzo.** Loatzo musika eskolako ikasleek saioa eskainiko dute, gaur, 18:30ean, eskola azpiko aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Ibarrako Eneko Haritzaren Lagunak kultur elkarte-koek egindako *Sua* filmaren grabazioko argazkiak ikusi daitzke kultur etxean, hilaren 29a arte.

Irudia Altzo



URTE BETEKO AKORDIOA SINATU DUTE

Altzo Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak hitzarmena sinatu zuten atzo. Akordioak urte beteko iraupena du, eta bi dira helburu nagusiak; euskarazko tokiko prentsa sustatzea, batetik, eta, bestetik, HITZA Altzoko herritarren arte-

an zabaltzea. Azken xede hau betetzeko egunkariak udaletxean HITZAren hainbat ale uzteko konpromisoa hartu du. Hitzarmena Jon Mujika egunkariko kudeatzaileak eta Altzo alkate den Miren Bardik sinatu zuten. E.MAIZ

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

Uda honetan **zatoz**
HITZAren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau oparri!

Harpidetuaren artean Oribaitzako Surf Prolongation surf taula jaso behar duzu

Harmarrei zabaldu: **902-82 02 01**
harpidetzea@hitza.info

hitza